

## **COVID-19/ERROLDAKO GAIEN TRAMITAZIOA**

---

Larrialdiekin erlazionatutako edo urgentziagatik bideratu beharreko errolda agiri beharrianei irtenbidea ematen ari da Bermeoko Udala.

Bermeoko herritarrek adierazitako errolda beharrianetan laguntza eskaintzeko eta irtenbideak emateko helburuarekin Udalak informazio guztia eta aukera ezberdinak martxan jarri ditu, alarma egoerak dirauen bitartean:

**Lehenengo aukera Egoitza Elektronikoa da. Bertatik, edozein ziurtagiri eskuratu dezake herritarrek.**

Bestalde, ziurtagiri digitalik ez duten herritarren kasuak antzeman dira. Udala pertsona hauei eskaini ahal dizkien aukerak aztertzen ari da kasuz kasu:

Herritarrek, [antolakuntza@bermeo.eus](mailto:antolakuntza@bermeo.eus) edo [010@bermeo.eus](tel:0100000000) helbidean eskaria egin behar du.

**Bestalde, Higiezinaren Maileguetan luzamendua eskatzeko edo alokairuetan onurak izateko eskariak jasotzen ari da Udala azken egun hauetan.** Horietarako, herritarrek finantza erakundeetan ERANTZUKIZUNEZKO ADIERAZPENA AURKEZ dezake, alarma egoera altxatzean dagokion ziurtagiria aurkezteko beharrianarekin.

**Bestalde, kasu hauetarako, emailen errolda agiria jasotzeko aukera ere ireki du Udalak:**

- Emaila jasota, Udalak, erantsi beharreko dokumentazioa eta izenpetu beharreko inprimakia bideratuko dizkio herritarri.
- Behin guztia emailen jasotzen duenean, Udalak erroldako agiria babestua bidaliko dio eskatzaileari. Bigarren email batean sarbide gakoak ere bidaliko dizkio.

**Urgentziatzeko gainerako kasuak** ere emailen jasotzeko eskaria egiten ari da Udala eta momentuz, jasotako guztiei irtenbidea ematea lortu du. Korreo elektronikorik ez duten herritarrei, 010 telefono bidezko aukera eskaintzen zaie, euren beharriana zein den aztertu eta beste irtenbide batzuk proposatzeko.

Bermeon, 2020ko apirilak 3an

Naiara Anasagasti Meñaka

